

EUSEBIO MARIA AZCUEREN

BIZITZARI BURUZKO ZERTZELADA BERRIAK

Jon Kortazar

Eusebio Maria Azcue edo Eusebio Maria de los Dolores Azcuere (Lekeitio 1813-1873) bizitzari buruz dakiguna erreparatzea, zuzentzea eta osatzea da lan honen helburu nagusia.

Bizkaiko Artxibo Foralean lau dokumentu aurki daitezke Eusebio Azcuere buruz, eta laurak ardatz gisa hartuta eramango dut aurrera gaurko aurkezpen hau. Normala denez, gehienak Tribunaletako atalean aurkitzen dira, beraz, nahi edo nahi ez, horien bidez hartzen den irudia ez da oso abegikorra izaten. Dokumentazio hori oso erraz aurkitzen da Artxiboan eta, beraz, pertsonari buruz hartu dezakegun irudia ez da onena, ez. Lauron artean bi dira Tribunaletakoak, Eusebio Azcuek izan zituen arazoen berri ematen digute.

1. Deustuko Udalak hartzen duen berria 1849.ean. Eusebio Azcue eta Nautika irakaskuntza.

1849. urteko apirilaren 23an Hezkuntza Publikoko Zuzendaritza Orokorak jakin arazten dio Deustuko Udalari Agustin Urrutiak Eusebio Azcuek beste eskubide duela, eta beraz gai dela udaleko Nautika eskoletan eskolak emateko.

Dokumentua berria da, eta zerbait esaten du Eusebio Azcuere bizitzari buruz. Ez dakigu zein zen Agustin Urrutia. Baina badirudi Azcuere mailak zerbait adierazten zuela. Agian adiskideak ziren Urrutia eta Azcue, eta hark Azcuere esperientzia erabili zuen postua lortzeko. Jakina baita Azcuek bere ibilbidean hiru herritan eman zituela Nautika eskolak. Literatura munduan gabiltzanok ez, baina

historiagileek, batez ere Gonzalo Duo ikerlariak (2001) emanda zuen datu garrantzitsua: Eusebio Azcuek curriculum bi aurkeztu zituela, bata 1842. urtean Bermeoko eskolan lan egiteko, eta bigarrena hogei urte geroago, 1862. urtean, Lekeitioko Nautika Eskolarako eskaria egin zuenean.

1842ko curriculumana, Zamudion 1842ko Abenduaren 6an sinatu zuena, Bermeoko Artxiboan ikusteko beta izan dugu. Aitorpen horrek datu hauek uzten ditu garbian (Duo, 2001, 88-91, eta BUA-992):

a) Gaztelera ongi menderatzen du: “Conocimientos exactos de Gramatica castellana”. Eta ikasketa Matematikoak ditu, kalkulu diferentziala eta integrala, eta horiek Bilboko Kotsulatuaren eskolan eginak ditu: “se dedicó á las Matemáticas en el Iltr. Consulado de Bilbao”, eta ez dira aipatzen, Bilboko San Frantzisko komentuan egindako latina eta filosofia ikasketak, baina datua Resurreccion Azcue semeak aipatua denez, ontzat eman beharko da (PB, 5); dena dela, oker dabil esaten duenean laster joan zela sendia Zamudiora bizitzen. Azcue Barrundia familiaren seme-alaben bataio tokiak aintzat hartuz gero, 1818an Bakion bizi zen familia, eta 1825an Zamudion, urte horretan bataiatu zituzten Domingo Bernabé semea eta 1827an Josefa Ygnacia Margarita alaba. Hurrengo urteetan ere izan zuten seme-alabarik: 1830an eta 1832an. Saiatuko gara familia aurkitzen 1827ko Errolda poliziala deiturikoan, baina ez dugu sendia aurkitu ez Zamudion, ez Bilbon, ez Lekeition. Garai horietan Azcue zenbait gazteren irakaslea izan zen: “en las que tiene también el honor de haber instruido a varios juvenes”.

b) Segundo Olabarria irakaslearekin Nabigatzeko Artea edo Pilotajea ikasi zuen eta bidaien ondoren hirugarren Pilotu titulua zuen: “Tercer Piloto de la carrera de ambas Américas y de Europa”. Horrek esan nahi du itsasoan ibili zela, baina ez du berez adierazten bidaia luzerik egin

zuenik, edo hori zenik bere ogibidea: “y después de los correspondientes viages en clase de agregado á Pilotos para perfeccionarse en la práctica”. Ikasketa bidaiak izan ziren; pilotu izateko, ikasketez gainera, praktikak egin behar zirelako. Horrek berez ez du esan nahi, “itsasoak urratzen ibili zenik”.

c) Irakaslea kontratatzeke deia Bizkaiko Boletinean agertu zen 1842.06.10ean eta bertan 3.300 beloi errealean soldata iragarri zen irakaslearentzat.

d) Eskariaren ondoren kontratu eskritura gorde da Bermeoko Artxiboan, eta horretaz Gonzalo Duok ez du ezer adierazi. Kontratuan garbi adierazten da zeintzuk izango diren irakaslearen lanak: kontratua bost urtetarako zen; lana otsailaren 1ean hasi behar zuen, 1848ko otsaila arte; soldata 300 dukatekoa zen; irakaskuntza bost gairi buruz eman behar zuen: Aritmetika, Geometria, Trigonometria, Kosmografia eta Pilotajea; ikasketa orduak, hauek: neguan bederatzietatik hamaika eta erdietara eta ordu bietatik lauretara; udan, berriz, zortzietatik hamaika eta erdietara eta hiruretatik bost eta erdietara; irakaskuntza Císcarren eskuliburua erabiliz egin behar zen, baina onartu zuten metodo laburtua erabiltzea; Azcuek hilero eman behar zuen ikasleei buruzko informea; Bermeon jaiotakoek ez zuten ezer ordainduko, eta Azcuek ezin zien dirurik eskatu, bai aldiz kanpokoei; ordezkoa Azcuek bilatu eta ordaindu behar zuen, gaixorik izanez gero, baina gaixoa beterikoa balitz, lantokia hutsik geratuko zen eta deialdi berria egingo zuen Udalak. Aipatu beharko litzateke Udaleko burua Juan Ángel Yradi zela, konstituzionala bera. Aipagarria da, zeren garbia da Azcue karlista ezaguna zela. Eta, hala ere, plaza lortu zuen.

d) Eskolak Bermeon Frantziskotarrek zuten komentuan ematen ziren. Beraz, oso erraza izan zen Jose Antonio Uriarteren eta Eusebio Azcueren harremana. Eliza kulturako gorde zen. Baina fraideen etxea Nautika

eskolarako erabili ohi zen. Datu hori oso garrantzitsua da, zeren esan dezakegu une horretan hasi zuela Juan Antonio Uriarte fraide eta idazlearekin harremana. Eta bere poema batzuk 1860tik 1862 bitartean sinatuak agertzen badira ere, une horretan hasi zuela bere poesia lana. Beraz, orain arte uste zenaren aurka, pixka bat lehenago jarri beharko genuke haren poesia lanaren hasiera, "Pio IX eta Napoleon III" poemak, adibidez, 1848-1850 artean gertatutiko ekintza historikoak aipatzen ditu. Ondorioztatu dezakegu orduantxe hasi zela Eusebio Azcue poesia idazten, haren lana gutxi gora behera 1850. urtearen inguruan hasi zela, eskuizkribuan jartzen duen 1861. urte arte, salbuespenekin (Astigarraga, Bijuesca, 1990, 29 eta 15 poema datatuak aipatzeko orduan).

d) Artxiboan badira Azcuek Udalari bidalitako hainbat eskari: adibidez, eskatu zuen eskola presondegi izandako aretoan kokatzea, edo ludi globo bi hartu izana bermatu zuen beste batean.

e) Badirudi 1843. urtean Eusebio Azcue Bermeon bizi zela, han bataiatu baitzuten lehen alaba, Sofia 1843. urteko abenduan bataiatua, eta orain arte inon ez aipatua. 1849. urtean jaiotako Carolina, berriz, Mundakan bataiatu zuten. Ez dugu aurkitu noiz eta non jaio zen Alfonso Maria semea. Baina badirudi 1845. urtean jaio zela, Sofia bezala Bermeon hori ere.

Yradik (1983) ikasleei buruzko zenbait berri eman zituen, adibidez, 1843. urtean 20 ikasle izen zirela diosku. Eta gaiak. Aritmetika, Geometria, Kosmografia eta Pilotajea zirela aipatu du, badakigu baina bost gai eskatu zizkietela Azcueri. 1844. urtean aurreko urteko zazpi ikasle ziren eta beste 15 berri matrikulatu ziren. Azcuek lehen ikasturtean 21 ikasle aipatu zituen eta azkena Gonzalo Duok bere semetzat eman duen Juan Julián izan omen zen; bada Zamudion jaiotako Juan Francisco Azcue Zalbidegoitia bat, 1820. urtean jaioa, eta 1847. urtean Bilbon ezkondu zena;

badirudi 21 urte askotxo direla Nautika Eskoletan hasteko, baina agian hauxe da ikaslea, bere senidea dela dirudi, zerbait izatekotan. Baina ezin da seme izan.

Erabili ohi zuten eskola liburua Gabriel Císcar (1769-1829) tenientearen *Tratado de navegación* zen, benetako izenburuz *Curso de estudios elementales de marina, compuesta de cuatro partes: aritmética, geometría, cosmografía y pilotaje* zen, eta horretatik Bermeoko Nautika eskolan aipatzen ziren lau gai nagusiak. Baina ikasle guztiek ez zuten hori jarraitzen, baizik eta metodo laburtu bat.

1843. urteko Errege Agindu batek eskolak emateko moduak aldatu zituen eta Eusebio Azcuek ez zituen betetzen arau berriak. 1846. urtetik aurrera soilik Ferrolen, Bilbon eta Donostian egindako ikasketak behar ziren Nautika irakasle izateko. 1828an jada Bermeon eta Azcueren irakaslea izan zen Segundo Olabarriak bazituen arau berriak eskatzen zituen tituluak eta beraz, 1848tik aurrera bera izan zen Bermeoko Nautika Eskolako irakaslea. Kontratu berria sinatu zen unean Udalak baldintza berriak jarri zituen eta araudi oso zehatza eskolako irakaskuntza egun, ordu eta eskola lanak aipatuz (Duo, 2001, 91-93).

Urte horretan bada, Eusebio Azcuek Bermeoko Nautika eskola utzi egin behar izan zuen eta Mundakako Nautika Eskolara heldu zen. 1862ko curriculum vitaeri esker jakin dakigu, Azcue "Caballero condecorado con la Cruz militar de primera clase de San Fernando" zela. Datu horrek adierazpen bi behar ditu. Hain garrantzitsua izan den Gurutze hori ez zuen aipatu lehen curriculumean, eta egia balitz, horrek adieraziko luke Gerrate Karlistan parte hartze berezia izan zuela, inondik inora ez "behartua", Eusebio Erkiagak adierazi duen moduan.

Bermeoko kontratua bukatu ondoren, Mundakako lehen ikasturtean 42 ikasle izan zituen 1848.ean. Mundakako nautika Eskolan Irakasle zen Miguel Joaquín

Goldaracena juxtu urte bete lehenago, 1847.anean hil zen. Horrek azalduko luke aldaketarako bigarren arrazoi bat.

Mundakako eskolak 3 urte iraun zituen Gonzalo Duoren ustez, eta beraz 1851. urtean amaitu zuen bere ibilbide ofiziala, baina Mundakako Udaleko artxiboan badira ondorengo urteetako berriak eta agiriak. Haren autobiografian esaten denez, Eusebio Azcue Bermeoko eskolako irakaslea zelarik joan zen Ferrolera -eta datu hau ere berria da- 1843. urteko ekainean eta orduantxe lortu zuen Irakasle titulua:

“Habiendo pasado a Ferrol en el mes de junio de 1843 a ser examinado de Maestro, obtuvo en el examen la calificación de sobresaliente” (Duo, 2001, 122; LUA).

Hiru urteon ondoren, Mundakako udalak erabaki berriak hartu zituen, zeren irakaskuntza legea berriro aldatu zen, eta 1851. urte osoan Nautika eskolaren jarraipena lortzeko asmotan ibili zen. Lortu zuten eskolaren jarraipena 1851ko uztailaren 27an:

“Se leyó una comunicación del Sr. Gobernador de esta Provincia [...] se ha dignado acceder a la solicitud de este Ayuntamiento y varios otros limítrofes, concediéndole la continuación de la Escuela de Náutica en los términos que lo solicita” (MUA, 1851-07-27).

Eusebio Azcuek eskola pribatuak eman zituen Mundakan harik eta Lekeitioko Nautika Eskola sortu zen arte 1862. urtean. Baina Mundakako Udaleko Agirietan besterik ere agertzen da. 1851. urtean Eskolaren iraupena lortu ondoren bera zen eskolako irakaslea:

“Al municipalidad animada de los mismos deseos [irakasleak izendatzeko gogoaz] y conviniendo en la urgencia del caso unánimemente nombraron por profesores propietarios a D. Eusebio Azcue

maestro de náutica que actualmente explica en esta Anteiglesia y a D. Manuel Sagredo maestro de primeras letras de este pueblo” (MUA, 1851-08-05).

Mundakako eskolaren funtzionamenduaren berri Gonzalo Duok eman du, Plentziak eskola izateko egin zuen eskari batena agertzen delako. Maisu bi ziren, bata maisu elementala zen eta 2000 erreal irabazten zituen, bigarrenak, ordea, eta hori Azcue zela pentsa dezakegu, lehen urtean Aritmetika eta Aljebra irakasten zituen, bigarren mailan Geometria, Trigonometria, eta Marrazki geografikoa, eta hirugarrenean, Fisika, Kosmografia, Pilotajea eta Marrazki hidrografikoa.

Mundakako Nautika eskolaz badira zenbait berri txiki Mundakako Udal Agirietan. Zer zegoen eskolan (“existen los globos y esferas compradas para la última [Nautika eskolarako]” MUA, 1852-01-25); zer behar zuten (“Se compre el encerado que falta en náutica” MUA, 1852-02-01).

Baina laster arazoak ozpindu egin ziren eta Udalaren eta Azcueren arteko iskanbilaren berri ematen dute agiriek:

a) Dirudienez, urte horretako otsailean Azcuek eskari batzuk gogor bidali zituen udalera.

“En vista de los términos poco comedidos y falta de respeto que se ve en dichas comunicaciones por el maestro D. Eusebio María de Azcue, unánimemente aprobaron cuanto ha dispuesto la comisión y ordenó que de todo se de cuenta a la superioridad a los fines oportunos” (MUA, 1852-02-15).

b) Udalak soldata barik utzi zituen maisuak:

“Y se dice sea copia de las remitidas, excluyendo (sic) de él [urteko presupuestotik] los cinco mil

reales de los maestros de náutica” (MUA, 1852-03-07).

c) Udalak zalantzan jarri zituen maisuen ahalbidea eskola horiek emateko:

“Se aprobaron los presupuestos de 1853 con la condición de que si los maestros de náutica de esta puebla no estaban revestidos de título suficiente para explicar las materias que se han encargado, se excluya del indicado presupuesto el sueldo de estos” (MUA, 1852-03-14).

d) Badirudi Azcuek udalak eraturiko gelak eskola partikularrak emateko erabili zituela, nahiz ez dagoen garbi bera zen edo Sagredo zen gela erabiltzen zuena.

“Se dio cuenta de las diligencias practicadas con el maestro de náutica sobre que este no ocupe el local con lecciones particulares” (MUA, 1852-05-09). “Se dio cuenta del oficio del Sr. Gobernador acerca de que el maestro de náutica no ocupe el local con lecciones particulares” (MUA, 1852-07-04).

e) Udalak zor berezia eskatu zion Eusebio Azcueri, urtean irabazten zuen herena baino gehiagokoa.

“Se dio cuenta del oficio [...] que le han pasado los maestros pidiendo que se les pague el sueldo devengado en el último curso, y enterados, decretaron: que se les pague desde luego lo que piden, pero descontando a D. Eusebio María Azcue los mil cien r. que debe a la Anteiglesia desde primero de setiembre de 1.848, y las retribuciones que ha cobrado de los matriculados forasteros como perteneciendo al común” (MUA, 1852-10-31).

1852. urtean Nautika eskolaren ikasgela lekuz aldatu zen. Nesken ikasgelan ematen ziren eskolak, Udaletxearen barnean, eta azarotik aurrera, ganbara egokitu zuten eskolak emateko (MUA, 1852-07-04/ 1852-07-24). Laster zalantza izan zuten herrikoek eta kanpokoek berdindatu behar zuten ala ez, eta Araudi berria behar zutela garbi izan zuten (MUA, 1852-12-03). 1854. urtean udalak arazo larriak zituen maisuen soldata ordaintzeko eta herriko aberatsen laguntza eskatu zuten ordainketa egin ahal izateko (1854-07-09). 1854. urteko irailean udalak garbi zuen ordu arteko maisuek ez zutela behar bezalako titulaziorik eskolak emateko eta Nautika eskolaren itxiera aurreikusten zuten:

“Decretaron que se abra la matrícula para el próximo mes, anunciándose desde luego la vacante de maestros para su provisión en personas aptas” (MUA, 1854-07-18). “Se reunieron con el fin de fijar un pie (sic) a los maestros de náutica y poderse con ella sacar la oposición las plazas” (MUA, 1854-09-20).

Urte horretako urrian Eusebio Azcuere eta Sagredoren dimisioak hartu zituen kontuan Udalak:

“Se pasó a discutir los oficios dimisivos de los maestros de esta Escuela de Náutica D. Eusebio María de Azcue y D. Manuel Sagredo, y enterados los aceptaron ordenando hagan entrega de los efectos que haya en las cátedras que hayan desempeñado, y que en vista de tal renuncia se suspenda el próximo curso” (MUA, 1854-10-02).

1857. urtean, udaleko agiriek zera adierazten dute, ikasgelan eskola partikularrak ematen direla, baina berez ez dela eskolarik Mundakan:

“Pueda darse en el que está dando sus lecciones el maestro de náutica y puesto que esta escuela

no existe ya, unánimemente acordaron que en el término de 48 horas quede libre el referido local” (MUA, 1857-03-02).

Horrenbeste istilu eta iskanbila izan ondoren, ez da arraroa Eusebio Azcuek joateko gogoia izatea, eta Lekeitioko eskola martxan jarri zenean hara jo zuen. Lekeitioko Nautika eskola Jose Javier Uribarren eta bere iloba zen Jose Luis Abaroak lekeitiarrek jarri zuten, eta lehen unetik oso ospetsua izan zen. Pilotaje katedrara aurkeztu zuen bere burua Eusebio Azcuek. Gainera Xabier Alzibarrek jakin duenez, 12.000 errealekoa zen soldata, Mundakan baino lau aldiz handiagoa. Lehen ikasturtean 64 ikaslek eman zuten izena ikasketak han burutzeko. (Duo, 2001, 80). Pilotu izateko Eskola Ofiziala izendatu zuten, eta, azterketarako, Bilboko Institutuko Zuzendaria zen azterketa buru. Berarekin batera eskolako irakasle bi batzen ziren. Eta Gerrate Karlista piztu arte Eusebio Azcue mahaiko izan genuen lan horretan. Gonzalo Duok aipatzen du gerrate ostean ere Azcue bera izan zela mahaiko, baina ulertu dezakegunez beste norbait zen, Eusebio Erkiagaren iritziz, haren seme Alfonso Maria.

“Después de la guerra siguió Azcue [...] Las actas del curso 1882-1883 están firmadas por un tribunal presidido por Juan Acordagoicoechea, siendo vocales Azcue e Ibarra” (2001, 81).

Hori ezinezkoa da, Eusebio Maria Azcue 1873. urtean hil zelako.

2. Azcue Mundakako udalaren kontra. 1856. Azcueren ideologia.

Bizkaiko Artxibo Foral nagusian aurkitu dugun bigarren agiria Azcue Bizkaiko Aldundiari bidalitako salaketa bat da. 1856. urtean abuztuaren hemeretzi gutun bat bidali zion Bizkaiko Aldundiari, hautesleen zerrenda bat agertu zela-eta bere iritziz hauteskundeetan izurria izateko arriskua zelakotan:

“Ha aparecido en la puerta de la Iglesia Parroquial una lista de electores para las próxima renovación de municipalidad, lista que solamente comprende ciento sesenta y nueve nombres, algunos de difuntos: este número de electores corresponde según el artículo treinta y uno de la ley á una población de doscientos y quince vecinos.

Esta Anteiglesia según la estadística, que hace muchos años no se ha renovado, tuvo trescientos cincuenta vecinos; pero actualmente su población pasa de setecientos vecinos [...]

El Ayuntamiento por ligereza o mala fé ha contravenido á la ley; esta contravención puede ser causa de amaños de pandillage (sic), origen de la ruina de los pueblos” (BFA, K 200380/122).

Hain zuzen ere, 1857. urteko otsailean udala berritu egin zen eta Jose Fradua izendatu zuten alkate. Ikusi dugu Azcueren eta Udalaren arteko harreman deserosoa 1851. urtetik zetorrela, baina dirudienez harremana ez zen gozatu eta Eusebio Azcueren ideologia karlistak gogor jotzen zuen Udal konstituzionalaren aurka. Gainera, agian, arrazoia zuen, zeren, historiagileek diotenez, Mundakak une hartan 2.250 biztanle zituen, gaur baino dezente gehiago.

Eusebio Azcueren ideologia karlista nabaria da. Izena ere karlista tradiziokoa da, Eusebio Maria gisa agertzen da bataio agirian (1813), baina, lehenengo ezkontza agirian, de los Dolores gehitzen du (1843) (Astigarraga, Bijuesca, 1990: 13), eta izen hori karlistek jarri ohi zuten Karlos VII.aren alabaren oroigarri gisa, beraz badirudi bere gogoz egin zuela aldaketa, kontuan harturik lehen gerra karlistaren bukaera hurbil zegoela oraindik: Aldiz, bigarren ezkontza agirian (1857), eta berriro de los Dolores heriotza agirian (Astigarra, Bijuesca, 1990, 547-551). Baina ez beste inon. Deba dela, halaxe jarri zion bere alaba bati: Aurora Maria de los Doloresi (1860).

Bere hainbat olerkitan ere joera tradizionalista nabaria da. Bada olerki bat garbi-garbi agertzen duena haren joera elizkoia eta tradizionala: "Pio IX eta Napoleon III" (EV, 219-227). Hain zuzen ere, Napoleon III.naren aurka egindako testua dugu, eta, zentzu zabalean, Estatu Vatikanoren aldekoa. Ezaguna denez, Aita Santuaren aurkako joera hori 1848. urtean hasi zen, eta 1848-1851. urteen buruan agertu. "Bardintasuna" (EV, 343-346) edo "Libertadian arguitasuna" (EV, 180-184) poemetan liberalismoaren zenbait ezaugarri kritikatzeko ditu eta "Anchinarik ona" (EV, 228-235) poematan aspaldiko denboreko nostalgia erakusten badu, "Guizaldi onetaco deungac" poemak (EV, 401-406) garaiko gizartearen kritika zorrotza dakar.

Gaurko girotik begiratua, ez da Eusebio Azcueren poesiaren ideologia oso abegikorra egiten, andrearen irudia oso barregarri erabili ohi duelako maiz, eta, gainera, haien irudia ez duelako maiz oso garbi uzten.

3. Epaiketa zibilak 1851 eta 1857. Bizitza pribatua.

Eusebio Azcueren bizitza pribatuaz dokumentu bi aurkitu ditugu Bizkaiko Artxibo Foralean. 1851. urtean gertatzen den lehen epaiketan (Busturia 0488/047) bera da salaketa jarri zuena Migel Elordiren aurka, horrek samatik heldu ziolako (“le echó mano al pescuezo”), Azcueren ustez motiborik gabe. Ondoren azaltzen da, nautika eskola ematen ari zela, neskato txo batzuk atea itxi ziotela, eta Azcuk eskolatik irten eta bati ipurdiko bat eman ziola (“le dio un azote sobre la ropa/capa?”), eta neskato hori Elordiren alaba zen. Salaketaren ondoren Elordi zigortu zuten: “un día de arresto” jarri zioten. 1857. urteko apirilean gertatzen den bigarren epaiketan (Busturia 0489/028), aldiz, Eusebio Maria da salatua eta Gabriel de Echevarria salatzailea. Echevarriaren esanetan, Azcuk 1.027 erreal zor dizkio haren emazteari, Maria Paula Lezamizeri, Azcueren seme-alabei emandako esne-janariarengatik (“latancia [...] ha dado á los hijos del demandado Conrado y Sol”). Azcuk erantzun zuen egia zela urte biz eman ziola titia Maria Paulak Conradori, baina ez zituela biak osatu, haurdun geratu zelako, eta egia dela Sol-i, hamasei hilabetez eman ziola, baina Paulak gauza asko eraman zituela bere etxetik, eta beraz, prest zegoela akordio batera heltzeko. Zorra kitatzeko, maiatzaren hasieran 200 erreal emango zizkion Echevarriari eta 80 hilearen bukaeran, eta beste horrenbeste beste hilabetetan zorra guztiz ordaindu arte.

Ikusten denez, epaiketa biek ez dute garrantzi handirik, baina Eusebio Azcueren nortasuna azaltzeko balio dute. Lehenak, agian, Eusebio Erkiagak bere ontasunean poetaz idatzi zuen irudia lausotzeko balio digu. Behintzat haserre eta gogor agertzen zaigu bere bizitzako pasadizo horretan. Bigarren dokumentuak, baina, zerbait gehiago diosku. Alde batetik, Eusebio Azcuk diruarekin zituen arazoak berri ematen digu. Ez da lehenengo aldia zorretan ikusten dugula gure poeta. Mundakako Udalak berarekin

zuen zorra eskatu zion poetari, gorago ikusi dugun bezala. Soldata aldetik ere ez zebilen diruz ongi hornitua Eusebio Azcue. Bermeoko Nautika Eskolan 3.300 erreal urtero irabazten zituen. Mundakako eskolako irakasleen soldataz hitz egiten denean dokumentuetan 5.000 edo 4.000 erreali buruz hitz egiten da. Baina badirudi Sagredo maisuak 2.000 kobratzen zituela, beaz, Azcuarentzat 3.000 edo 2.000 erreal urtero izango ziren. Horri gehitu behar zaio ikasketa partikularrekin lortzen zuena eta herriz kanpoko ikasleei kobratzen zitzaiena, ohitura zen moduan Nautika eskoletan; hau da udalerrikoentzako doan zen eskola, baina kanpotarrei kobratzeko joera zegoen Bermeon. Mundakan ere horrela gertatu ohi zen, inoiz Udalak zalantza izan bazuen ere jarrera horretaz. Kontuan hartu beharko litzateke Bermeoko Eskolako soldata 4.950 erreal zela Azcuek utzi zuen urtean. Beraz, soldataren aldetik galdu egin zuen Azcuek Mundakara etorrita.

Beste alde batetik, alargunaren minak agertzen ditu.

Eusebio Azcueren lehen emaztea, Laureana Ocerin, 1856ko azaroaren 23an hil zen. Laureana Bilbao abizenarekin bataiatu zuten, eta hori ere lehen aldiz ematen den datua da, 1820ko uztailaren bostean. Aita ezagunik ez zuenez, Bilbao abizena eta amaren abizena Ocerin erabili zituen bere bizitzan. Bost seme-alaba izan zituzten Eusebiok eta Laureanak, eta hau ere datu berria da, orain arte lau zirela uste baitzen: Sofia, Bermeon bataiatua 1843ko abenduan (Bermeo, 1843-Zamudio 1846), Alfonso Maria (1845-1894), Carolina (1849), Conrado (1853-1870) eta Sol (1855-12-19, bigarren abizenez Bilbao gisa bataiatu, bigarrena aldaturik, alegia, ama hil baino ia urte bete lehenago jaioa. Horregatik, 1857 apirilean egindako epaiketan aipatzen den hamasei hilabeteko epea.

Jakina da bigarren ezkontzaz Mari Carmen Aberasturi hartu zuela emaztetzat. Emakume hau alarguna zen. Bere lehen senarra Tomas Aguirre 1856ko maiatzean hil zen

(1835-1856). Baina ezkontza horretan badira datu bi deigarriak. Lehendabizi ezkonduen adina: 1857ko ekainaren 3an ezkontzen direnean Eusebio Azcuek 44 urte ditu eta 1835. urtean jaiotako Mari Carmen Aberasturik 22. Bigarren datua ere jakina da, biak ziren alargunak, Maria Carmen 1856ko maiatzean alargundu zen, Eusebio urte bereko azaroan. 1857ko ekainean ezkondu ziren eta beren lehen alaba, Julia, 1857ko urriaren 21ean jaio zen. Aberasturi haurdun ezkondu zen, beraz.

Jakina da baita ere elkarrekin zortzi seme alaba izan zituztela, bi, dirudenez oso gazterik hilak: Julia (1857-1874), Aurora Maria de los Dolores (1860), Jesus Maria del Carmen (1862) Mundakan jaioak, eta Lekeition Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves, euskal ikerlari handia (1864), Maria Luz (1867, urte beran hila), Diana Maria de la Paz (1868), Heliodoro Maria Antonio Pedro Pascual (1870-1872), eta Julia (1873-1874) aitaren heriotza urtean jaioa. Aitaren 13 seme-alabetatik lau laster hil ziren.

4. Eusebio Azcueren poesia.

Bizitza min horiek izan zuten agerpenik bere obran? Ez da Eusebio Azcue nitasunaren poeta bat, nahiz eta lehen pertsona noizbehinka agertu bere obran. Adibide ederra da Eusebio Azcueren pathos erromantikoaz hitz egiteko, "Euskaldun bat Buenos Ayres aldia" (EV, 148-159). Poema horretan nitasun bi agertzen dira, Eusebio Azcuerekin lotu dezakegun lehena, eta Buenos Airesetik idazten duen pertsonaiarena. Eusebio Azcuerekin identifika dezakegun ahotza narratiboa da guztiz:

"Buenos Ayres aldeti

Artu dot carta bat:

Vertsoan imiñteko

Gurarijha daukat" (EV, 148)

Buenos Airesetik gutuna idazten duenak, ordea, bere bizitzaren zorigaiztoa azaltzen du. Pertsonaiak betetzen ditu ezaugarri erromantikoak, baina ez, aldiz, egilearen niak; zorigaizto, triste bihotzetik, ametsa, negarra...

Beste adibide bat ere badago. Poetaren nitasunarekin lotu dezakegun lehen pertsonaren erabilerak poemaren marko nagusia eratzen du "Santo Domingoco Islaren Española biurreriari" (EV, 455-462):

"Etorri naz Bilboruntz
Algortaco aldetic,
Ibaizabal ganian
Daguan bidetic" (EV, 455).

Eta orduan entzuten du poetaren irudiak Nereiden batzar bat eta hauek, berriro lehen pertsona erabiliz, Santo Domingotik datorren Nereida batek bere ahizpei gertaturikoaren berri ematen die. Agian "Adina" bezalako poemaren baten agertzen du Eusebio Azcuek joera erromantikoren bat. Bestela, narratibotasunak eta alegoria joerak hartzen ditu haren poemak.

Bere lehen editore izan zen Manterolaren iritziak irakurriz gero, ez da dudarik asmatu egin zuela bere iritzietan:

"El señor Azcue [...] ha cultivado más o menos todos los géneros de la poesía, y en su precioso volumen se encuentran al lado de algunas composiciones religiosas, llenas de sentimiento y que dan á conocer sus arraigadas creencias católicas, otras muchas de género satírico, llenas de gracia y de intención; numerosos epigramas [...], varias fábulas, originales unas, traducidas otras, y diferentes composiciones morales y de costumbres" (*Parnasorako Bidea*, 7).

Eta beste iritzi molde batean:

“Y así, si en *Mundaca-ko arraiñ saltzaillac* [...] y otras muchas de la misma índole, se vé al poeta popular asimilándose al pueblo en cuyo contacto vivía, pintar en cuadros, sencillos pero de verdadero carácter y adecuado colorido, tipos del país, fiestas, costumbres, usos y aun abusos, tratando á veces de corregir estos últimos de presentar otras como modelos dignos de imitación prácticas que van cayendo en desuso y describiendo y fotografiando siempre con hábil pincel, tiempos, hombres y cosas” (*Parnasorako Bidea*, 11).

Genero nahasketa hori bera izan daiteke erromantizismoaren ezaugarri bakanetarikoa. Baina, nire ustez, Eusebio Azcueren poesia lotu beharko litzateke garaiko poesia burges eta neurri batean zaharkituarekin. Estimutzen ditut haren ohiturazko poemak, Manterolak hain zuzen deskribaturikoak, eta haren poesia politikoaz hitz asko egiteko modua badela ere niretzako dut. Baina ezin dut kendu gogotik ez dagoela haren bizitzako une krudelen aipamen biografikorik. Poesia narratiboa maite du Eusebio Azcuek, edo ideologikoa, edo deskribapenean oinarrituriko. Horregatik, bera presente egon arren, ez dago lirika handirik haren lanean, sentimenduak aipatzen badira ere.

Gehienez, aipatu beharko nuke baduela poema bat ezkontza desorekatuen aurka, adinez desberdin diren senar emateen aurka. Eta gai hori bere bizitzarekin loturik dago. Baina badakigu hori ere gai topikoa dela eta neoklasizismoan (Moratínen *El sí de las niñas* gogoratu baino ez dago), eta horretan ere molde literarioak gaina hartzen dio zentzu autobiografikoari.

ARTXIBATEGIAK

BUA. Bermeoko Udal Artxiboa

Bizkaiko Artxibo Forala

Bizkaiko Eliza Historiaren Artxiboa

LUA. Lekeitioko Udal Artxiboa

MUA. Mundakako Udal Artxiboa

BIBLIOGRAFIA.

AZCUE, Eusebio Maria: *Euskarazko vertsoak*. Asier Astigarraga eta Josu Bijuescaren edizioa. Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa. Bilbo 1990.

ASTIGARRAGA, Asier; BIJUESCA, Josu: “[Sarrera]” in AZCUE, Eusebio Maria: *Euskarazko vertsoak*. Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa. Bilbo 1990. 13-44.

AZKUE, Resurrección: “Arrgibidea” in AZKUE, Eusebio: *Parnasorako Bidea*. Astuitar J. Bilbo. 1896. 2. Ed. Hordago. Donostia. 1979.

DUO, Gonzalo: *Las escuelas de Náutica de Bizkaia, Gipuzkoa y Laburdi. Siglos XVI-XX. Análisis histórico documental*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz. 2001.

ERKIAGA, Eusebio: “Bizkaiko Olerkari bat: Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (Lekeitio, 1813-1873)”. *Olerti*. 1961 (1). 67-79.

andima.armiarma.com/oler/oler09/oler0941.htm.

KORTAZAR, Jon: “Eusebio Azkueren poesiagintza” in URIARTE, José Antonio: *Poesía Bascongada. Dialecto vizcaino*. Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiaren edizioa. Bizkaiko Foru Aldundia. 1987. 219-234.

Lan hau Gonzalo DUOren, Jon KORTAZAR BILLELABEITIAren eta Kepa ORMAETXEAREN laguntzarekin idatzi da.

Lan hau Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen IT 851/13 Ikerketa proiektuan kokatzen da.